

GAZTEONTZAKO

LEHIAKETAK

SOLASEAN 2016

- Klipmetraia

- Ipuina



BESTE BEGIRADA BATEKIN.
Kulturartekotasuna eta integrazioa

Aurkeztutako lanak berezko sorkuntzak izan behar dira eta kulturartekotasunarekin zerikusia izan behar dute. Lan guztiek integrazioa, bizikidetza ona eta kulturen arteko interakzioa sututzen dituen giza eskubideen errespetuan oinarritutako gizartearen aldeko apustua islatu behar dute.

LEHIAKETEN OINARRIAK:

Gazteok XXI kultur elkarteak gazteentzako bi lehiaketa antolatzen ditu: KLIPMETRAJEA eta IPUINA (jatorrizkoak), 2016eko Solasean eztabaida aurretik (2016-02-19). Bi lehiaketak 14 eta 30 urte bitarteko gazteentzat dira. Hiru ikastaroetarako oinarritzko baldintza honakoa da: lana jatorrizkoa eta argitaratu gabea izan behar da.



Lanak 2016eko otsailaren 6a baino lehen aurkeztu behar dira. Elizbarrutiko Gazteentzako Pastoraltzako ordezkartzan (Desamparados enparantza 1 -3. Pisua, Vitoria-Gasteiz), edo naiara@gazteok.org posta elektronikoaz.


Sail bakoitzeko sariak: **200€ irabazlearentzat**

Izena emateko datuak: izena, deiturak, adina, helbidea, telefono zenbakia eta posta elektronikoaren helbidea. Gazte talde batek izena eman nahi badu, erantsi behar du taldearen jatorria eta ordezkari bat aukeratu beharko du; halaber, izena emateko beharrezkoak diren datuak adierazi beharko ditu.

Ziurtatu zure lanaren hartu izanaren agiria jaso duzula. Hala ez bada, jarri gurekin harremanetan telefono honen bidez: 945.123.483.

Aukeratutako lanak erabili eta erakutsi ahal izango dira Solasean 2016ean edo Gazteok XXI elkarteak erabili ahal izango ditu nahi bestetan egileei ordaindu beharrik gabe.

Epaimahaiak jendaurrean jakinaraziko du irabazlea zein den Solasean bertan (gazteen arteko eztabaida), 2016eko otsailaren 19an, Vitoria-Gasteizko Hegoalde gizarte etxeko antzokian.



IPUINA: Bakarrik SOLASEAN 2016 GIDA DIDAKTIKOA landu duten gazteentzat (gure web gunean lortu ahal duzu: www.gazteok.org). Kontakizuna ezin izango da izan orrialde eta erdi baino luzeagoa, hau da, 4.000 karaktere hutsuneak barne, gehienez. Erabili beharreko letra mota Arial 10 izango da (lerroartea normala izango da). Istorioak izenburua behar du.

KLIPMETRAIA: Klipmetraiak minutu bateko film laburrak dira. Fikziozkoak, animaziozkoak edo dokumentalak izan daitezke.. Proposatutako gaiari buruz hitz egin beharko dute, beraz, ez da onartuko beste gai bat jorratzen duen edo publizitate edukirik duen klipmetrajerik. Norberak egindako lanak izan behar dira eta erabiliko diren irudien, musikaren edo soinu banden eskubideak libreak izan behar dira, hartara klipmetraiaren egileak frogatu beharko du aipatutakoen eskubideak dituela.



*** Aurkeztutako lanek bat egiten ez badute lehiaketaren oinarriekin, ezin dira sarigai izan.**

*** Edozein argibide nahi izanez gero, ez izan zalantzarik eta jarri gurekin harremanetan. Zorte on!**